

Euskal AEko familien batez besteko gastua 36.331 eurokoa izan zen 2023an, 2022an baino % 4 handiagoa

Aurreko urtearen aldean igoera handiena Aisia eta kulturara bideratutako gastuan izan zen, % 21,6rekin

Eustaten datuen arabera, **etxe bakoitzeko batez besteko gastua**, termino arruntetan, 36.331 eurokoa izan zen 2023an, aurreko urtean baino % 4,0 handiagoa; gastuen artean *Aisia eta kultura* taldean egindakoa nabarmentzen da. **Pertsonako batez besteko gastua** % 4,5 hazi zen eta 15.570 eurokoa izan zen 2023an.

Gastu-taldeen arabera, etxe bakoitzeko batez besteko gastuen bilakaera goranzkoa izan da 12 taldeetatik 8tan. Etxe bakoitzeko batez besteko gastuak *Aisia eta kultura* taldean izan zuen igoerarik handiena 2023an, % 21,6ko hazkundearekin 2022ko datuen aldean; horrek esan nahi du etxe bakoitzeko batez besteko gastua 1.745 eurokoa izan zela urtean. Hazkunde hori, batez ere, *Jolas-, kirol- eta kultura-ondasun eta -zerbitzuak* taldean egindako gastuan oinarritzen da, talde horrek gastuaren % 62 hartzen baitu, *Pakete turistikoak* taldean egindako % 19ko gastuaren aldean; eta gainerako % 19a *Ikus-entzunezko, argazkigintzako eta informazioa prozesatzeko ekipotan, Prentsa eta liburuetan* egin zen.

Euskal AEko etxeetako etxeko batez besteko gastua eta gastuaren egitura, gastu-taldearen arabera (ECOICOP/EGF, 2 digitu) . 2022-2023

	Sutentatzaile nagusiaren prestakuntza-maila			Gastuaren egitura (%)	
	2022	2023	Gehikuntza (%) 2023/2022	2022	2023
GUZTIRA	34.928	36.331	4,0	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.444	5.714	5,0	15,6	15,7
02 T Edari alkoholduak eta tabakoa	399	405	1,6	1,1	1,1
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.397	1.402	0,3	4,0	3,9
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	12.297	12.849	4,5	35,2	35,4
05 T Altxariak, etxeko artikulua eta etxearen mantentze normalarentzako artikulua	1.528	1.448	-5,3	4,4	4,0
06 T Osasuna	1.203	1.272	5,8	3,4	3,5
07 T Garraioa	3.329	3.307	-0,7	9,5	9,1
08 T Komunikazioak	930	900	-3,2	2,7	2,5
09 T Aisia eta kultura	1.434	1.745	21,6	4,1	4,8
10 T Irakastuntza	731	617	-15,6	2,1	1,7
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.850	4.088	6,2	11,0	11,3
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.385	2.584	8,4	6,8	7,1

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Aisia eta kultura taldean eta Jatetxeak eta hotelak taldean egindako gastuak pisu handiagoa du Euskadiko etxeen aurrekontuan

Hazkunderik handiena izan duen etxe bakoitzeko batez besteko gastuaren bigarren talde handiena *Bestelako ondasunak eta zerbitzuak* (% 8,4) izan da; ondoren datoz *Jatetxeak eta hotelak* (% 6,2) —urtean zehar etxe bakoitzean 4.088 euroko batez besteko gastuarekin—, *Osasuna* (% 5,8) —kontzeptu horretan Euskadiko etxeek urtean batez beste 1.272 euro gastatu zituzten—, *Elikagaiak*

eta alkoholik gabeko edariak (% 5,0) eta Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak (% 4,5).

Aitzitik, aurreko urtearen aldean, etxeko batez besteko gastuak gutxitu egin ziren: *Irakaskuntza* taldean (-% 15,6), *Altzariak, etxeko gaiak eta etxeko mantentze arrunterako gaiak* taldean (-% 5,3) eta *Komunikazioak* taldean (-%3,2), aurreko urteetan izandako joerarekin jarraituz.

Kontsumoaren egiturari dagokionez, *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak* taldeko gastua da Euskal AEko etxeen gasturik handiena, gastuaren herena baino gehiago kontzeptu horretara bideratzen baitute (% 35,4), hau da, etxe bakoitzeko 12.849 euro urtean 2023an. Gainera, gastu-talde horrek etxeen guztizko gastu-aurrekontuan duen garrantzia ehuneko 0,2 puntu igo da 2022tik. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da 2023an etxe bakoitzeko batez besteko gastua % 8,8 jaitsi zela energia-fakturan; izan ere, *elektrizitatearen* gastua % 11,9 jaitsi zen 2022. urtearekin alderatuta, eta *gasarena* % 4,1; gastu horiek % 9,6 eta % 21,5 igo ziren 2022an, hurrenez hurren.

Etxeko batez besteko gastua *Elikadura eta alkoholik gabeko edariak* taldean hamarren bat igo da 2022an zuen pisuarekiko, eta gastuaren % 15,7 izan da 2023an, 5.714 euro etxe bakoitzeko. 2023an bi taldeen artean (etxebizitza, honi lotutako gastuak eta elikadura) etxe bakoitzaren batez besteko aurrekontuaren erdia (% 51,1) batu zuten, 2022an, berriz, % 50,8 izan zen.

Jatetxeak eta hotelak taldean egindako gastuaren garrantziak (4.088 euro urtean etxe bakoitzeko 2023an) ere gora egiten jarraitzen du, % 11,3ra iritsiz, 2022an baino 0,3 hamarren gehiago.

Euskal AEko etxeek kontsumoan egindako guztizko gastua % 5,0 hazi zen 2023an

Termino absolutuetan, Euskal AEko etxeek kontsumoan egindako **gustizko gastua** 34.272 milioi eurora iritsi zen 2023an, hau da, 2022an baino % 5,0 gehiago, bilakaera desberdinak erregistratuz gastu-taldeetan.

Euskal AEko etxeetako gastu osoa, gastu taldearen arabera (2 digitu ECOICOP/FGE). 2022-2023

	Gustizko gastua (mila euro)		
	2022	2023	Gehikuntza (%) 2023/2022
GUZTIRA	32.650.445	34.272.927	5,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.089.429	5.390.301	5,9
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	372.545	382.024	2,5
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.306.254	1.322.730	1,3
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	11.495.230	12.121.196	5,4
05 T Altzariak, etxeko artikulua eta etxearen mantentze normalarentzako artikulua	1.428.628	1.365.779	-4,4
06 T Osasuna	1.124.163	1.200.037	6,7
07 T Garraioa	3.111.905	3.119.341	0,2
08 T Komunikazioak	869.645	849.358	-2,3
09 T Alsia eta kultura	1.340.865	1.645.967	22,8
10 T Irakastuntza	683.593	581.965	-14,9
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.598.740	3.856.471	7,2
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.229.447	2.437.758	9,3

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Hala, guztizko gastuaren bolumenean esanguratsuenak diren bi taldeak, *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak* taldearen gastua eta *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* taldearena, % 5,4 eta % 5,9 igo ziren 2022aren aldean, hurrenez hurren.

Ondoren, Euskal AEko etxeek *Jatetxeak eta hotelak* taldean egindako guztizko gastua 3.856 milioi euro baino handiagoa izan zen, % 7,2ko hazkundearekin 2022aren aldean.

Nabarmentzekoa da, ehunekotan, *Aisia eta kultura* taldean egindako gastu osoaren % 22,8ko urteko hazkundea, 1.646 milioi euro izatera iritsiz.

Gustizko gastua, aldiz, murriztu egin zen *Irakaskuntza* (-% 14,9), *Altzariak, etxeko artikulua eta etxeko mantentze-lan arruntetarako artikulua* (-% 4,4) eta *komunikazioak* (-% 2,3) taldeetan.

Lurralde historikoen arabera, Euskal AEko kontsumoko gastu osoaren % 15,5 Arabako familiek egin zuten 2023an, Bizkaikoek gastuaren % 52,9 eta Gipuzkoakoek % 31,6.

Euskal AEko etxeetako guztizko gastua (milaka euro), gastu-taldearen arabera (2 digitu ECOICOP/EGF), lurralde historikoari jarraiki. 2023

	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
GUZTIRA	34.272.927	5.313.103	18.134.882	10.824.943
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.390.301	844.237	2.795.019	1.751.045
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	382.024	52.251	211.501	118.272
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.322.730	202.248	671.825	448.657
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	12.121.196	1.855.192	6.487.274	3.778.729
05 T Altzariak, etxeko artikulua eta etxearen mantentze normalentzako artikulua	1.365.779	193.318	798.605	373.856
06 T Osasuna	1.200.037	177.495	625.045	397.498
07 T Garraioa	3.119.341	560.500	1.588.787	970.054
08 T Komunikazioak	849.358	123.961	438.758	286.639
09 T Aisia eta kultura	1.645.967	252.744	924.548	468.675
10 T Irakaskuntza	581.965	64.668	326.645	190.652
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.856.471	600.576	1.950.663	1.305.233
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.437.758	385.914	1.316.211	735.632

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Bizkaiko etxeetan igo zen gehien etxeko batez besteko gastua

Bizkaiko etxeak lehenengo lekuan daude 2023an hiru lurralde historikoetako etxe bakoitzean izandako batez besteko gastuan, 36.491 euroekin, 2022an baino 2.602 euro gehiago etxe bakoitzeko (% 7,7); hiru lurraldeak hartuta hemen izan da hazkunderik handiena. Hazkunde hori, batez ere, *Osasuna* (% 23,0), *Aisia eta kultura* (% 26,1), *Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (% 12,0) eta *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaiak* (% 7,4) multzoetan, besteak beste, izandako gastuen gorakadak eragin zuen. 2022. urtearen aldean, ondorengo talde hauetan gastuek behera egin zuten: *Altzariak eta etxeko gaiak* (-% 9,3), *Irakaskuntza* (-% 9,0) eta *Komunikazioak* (-% 1,5), hiru lurraldeetan jaitsi ondoren.

Euskal AEko etxeko batez besteko gastua (euroak), gastu- taldearen arabera, lurralde historikoari jarraiki (ECOICOP/EGF, 2 digitu). 2022-2023

	Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2022	2023	Gehikuntza (%) 2023/2022	2022	2023	Gehikuntza (%) 2023/2022	2022	2023	Gehikuntza (%) 2023/2022
GUZTIRA	35.181	36.330	3,3	33.889	36.491	7,7	36.577	36.066	-1,4
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	5.767	5.773	0,1	5.024	5.624	12,0	6.008	5.834	-2,9
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	361	357	-1,1	409	426	3,9	398	394	-0,9
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.418	1.383	-2,5	1.346	1.352	0,4	1.475	1.495	1,4
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaia	12.507	12.686	1,4	12.159	13.054	7,4	12.433	12.590	1,3
05 T Altzariak, etxeko artikulua eta etxearen mantentze normalarentzako artikulua	1.186	1.322	11,4	1.772	1.607	-9,3	1.274	1.246	-2,2
06 T Osasuna	1.342	1.214	-9,6	1.023	1.258	23,0	1.443	1.324	-8,2
07 T Garraioa	4.138	3.833	-7,4	2.847	3.197	12,3	3.768	3.232	-14,2
08 T Komunikazioak	920	848	-7,9	896	883	-1,5	993	955	-3,8
09 T Aisia eta kultura	1.506	1.728	14,7	1.475	1.860	26,1	1.331	1.562	17,3
10 T Irakaskuntza	628	442	-29,6	722	657	-9,0	796	635	-20,2
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.161	4.107	29,9	3.805	3.925	3,2	4.251	4.349	2,3
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.246	2.639	17,5	2.410	2.648	9,9	2.408	2.451	1,8

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Araban, etxe bakoitzeko batez besteko gastua 36.330 eurokoa izan zen, 2022an baino % 3,3 handiagoa, hau da, etxe bakoitzeko batez besteko gastua 1.150 euro igo zen urtean. Gastu-hazkunderik handiena *Jatetxeak eta hotelak* taldean izan zen, % 29,9ko hazkunderarekin aurreko urtearen aldean; talde horretan etxe bakoitzeko batez besteko gastua 946 euro igo zen urtean. *Aisia eta kultura* taldeari dagokionez, Arabako familien batez besteko gastuak ere igoera nabarmena izan zuen 2022ko datuen aldean (% 14,7), baita *Altzariak eta etxeko gaiak* multzoko gastuak ere (% 11,4). Aitzitik, 2022an baino gastu txikiagoa izan zuten *Irakaskuntzan* (-% 29,6), *Osasunean* (-% 9,6), *Komunikazioetan* (-% 7,9) eta *Garraioetan* (-% 7,4).

Gipuzkoako etxeen batez besteko gastua % 1,4 jaitsi zen aurreko urtearekin alderatuta, urteko 36.066 euroko batez besteko gastuarekin etxe bakoitzeko. *Aisia eta kultura* (% 17,3), *Jatetxeak eta hotelak* (% 2,3), *Jantziak eta oinetakoak* (% 1,4) eta *Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta bestelako erregaia* (% 1,3) taldeetan batez besteko gastuak handitu egin dira. Aldiz, *Irakaskuntzan* (-% 20,2), *Garraioan* (-% 14,2) eta *Osasunean* (-% 8,2) izandako jaitsierak nabarmentzen dira.

Kontsumoko gastua etxeen ezaugarrien arabera

Euskal AEko etxeen gastua aztertuz, etxearen eta bertako kideen sailkapen-aldagaien arabera, datuen ikuspegi sozioekonomikoa lortzen dugu

Etxearen tamainari dagokionez, *kide 1* duten etxeek **pertsona bakoitzeko** 24.409 euroko **batez besteko gastua** egin zuten 2023an, Euskal AEko batez besteko gastua (15.570 euro) baino % 56,8 handiagoa Aurreko urtearekin alderatuta, *kide 1* duten etxeen gastua urtean 1.485 euro igo da, batez beste, pertsonako. *2 kideko* etxeak, pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 18.462 eurokoa izanik, batez bestekoaren % 18,6 gainetik egon ziren. Aitzitik, *3 kide* (14.024 euro) eta *4 kide eta gehiago* (11.223 euro) zituzten etxeak batez bestekoaren azpitik kokatu ziren, % 9,9 eta % 27,9, hurrenez hurren.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko tamainaren arabera. 2023

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	34.272.927	36.331	15.570
kide bat	7.138.818	24.409	24.409
2 kide	10.814.767	36.923	18.462
3 kide	7.371.543	42.069	14.023
4 eta gehiago	8.947.799	48.961	11.223

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etxeko diru-sarreraren iturri nagusiari dagokionez, diru-sarrera iturri nagusia *norberaren konturako lana eta jabetzaren eta kapitalaren errentak* zituzten etxeak izan ziren 2023an etxeko batez besteko gasturik handiena izan zutenak, urtean 45.245 euroarekin; Euskal AEko batez bestekoarekiko % 24,4 gainera kokatu zen, eta batez besteko gastua % 11,4 igo zen 2022. urtearekin alderatuta. Horrek esan nahi du etxeko batez besteko gastua 4.639 euro igo zela urtean. Ondoren, diru-sarreraren iturri nagusia *besteren konturako lana* izan zuten etxeak etorri ziren, batez beste 38.555 euroko gastuarekin etxe bakoitzeko; 2022an baino % 0,5 handiagoa. Azkenik, etxeko batez besteko gastua 32.441 eurokoa izan zen —aurreko urtean baino % 0,5 handiagoa eta Euskal AEko batez bestekoaren % 10,8 azpitik— pentsioak, subsidioak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak diru-sarreraren iturri nagusi izan zituzten etxeetan.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko diru-sarreraren iturri nagusiaren arabera. 2023

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	33.851.024	36.369	15.601
Norberaren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak	3.335.397	45.245	15.649
Besteren konturako lana	17.102.203	38.555	14.459
Pentsioak, sorospenak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak	13.413.425	32.441	17.332

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Etxeen gastuari dagokionez, **sostengatzaile nagusiaren jardueraren ondoriozko egoeraren** arabera, 2023an sostengatzaile nagusia aktibo zegoen etxeen batez besteko gastua 37.516 eurokoa izan zen, Euskal AEko batez bestekoa baino % 3,3 handiagoa eta 2022an baino % 2,2 handiagoa. Aitzitik, sostengatzaile nagusia ez-aktibo zegoen etxeetan, batez besteko gastua 34.515 eurokoa izan zen, batez bestekoaren % 5 azpitik, baina % 7,4ko igoerarekin aurreko urtearekin alderatuta.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, sostengatzaile nagusiaren jardueraren egoeraren arabera. 2023

	Guztizko gastua (mila euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euro)
GUZTIRA	34.272.927	36.331	15.570
Aktiboak	21.416.815	37.516	14.167
Ez-aktiboak	12.856.112	34.515	18.648

Data 2024ko Uztailaren 5a

Iturria: Eustat. Familia-gastuaren inkesta

Oharra:

Familia-gastuaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Gaur 2022 eta 2023 urteetarako argitaratutako datuek datu horiek berrikusi eta eguneratzen dituzte 2021eko erroldatik eratorritako biztanleria-zifrekin, biztanleriari, adinaren arabera egiturari eta etxeen osakerari buruzko informazio eguneratua barne hartuz.

Lehenengo fasean, 2022 eta 2023 urteetarako biztanleriak eguneratu dira. Beraz, eguneratze horrek eten egiten ditu orain arte argitaratutako datu-serieak, eta, ondorioz, ezin da konparazio homogeneorik egin.

Hori dela eta, 2022a baino lehen argitaratutako datuak berrikusi eta berriro kalkulatu behar dira, 2021eko Erroldatik eratorritako biztanleria-zenbatespen berriak kontuan hartuta. Berrikuspen hori bigarren fase batean egingo da, eta bertan erabiltzaileen eskura jarriko dira datuen serie homogeneoak.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62